

### III. ERANSKINA

#### KONTU HARTZAILEAREN FUNTZIOA OMITITZEAREN ESPEDIENTEA

##### 1. PROPOSAMEN TXOSTENAREN EREDUAK:

##### EGINDAKO JARDUKETEN JUSTIFIKAZIOA.

#### ESPEDIENTEAREN DESKRIBAPENA

- Espedientearen zenbakia eta deskribapena:
- Gastuaren modalitatea eta mota:
- Gastuaren fasea:
- Gastu fasearen zenbatekoa:
- Aurrekontuko aplikazioa:
- Omisioa duen ebazpenaren, dekretuaren eta/edo erabakiaren data (*hala badagokio*).
- 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren, 37. artikulua debekatutako ahozko kontratazio kasua (*hala badagokio*).

#### AURREKARIAK

##### *Aukerak*

1. Kontu hartzailearen funtzioaren omisio kasu bat da, eta, beraz, 117/2018 Foru Dekretuaren, abuztuaren 22koaren, Bizkaiko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolerako araubide juridikoa arautzen duenaren, 28. artikuluari jarraituz, ezin da obligazioa onartu, ordainketa izapidetu eta zehaztutako jarduketaren alde esku hartu, omisio hori ebatzi bitartean.
2. Organo kontu hartzaileak adierazi du kontu hartzailearen funtzioaren omisio kasu bat dela eta, horrenbestez, 117/2018 Foru Dekretuaren, abuztuaren 22koaren, Bizkaiko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolerako araubide juridikoa arautzen duenaren, 28. artikuluari jarraituz, ezin da obligazioa onartu, ordainketa izapidetu eta zehaztutako jarduketaren alde esku hartu, omisio hori ebatzi bitartean.

#### OINARRI JURIDIKOAK

- 117/2018 Foru Dekretua, apirilaren 28koa, Bizkaiko Tokiko Sektore Publikoaren entitateetako barne kontrolerako araubide juridikoiari buruzkoa.
- 10/2003 Foru Arau Orokorraren, martxoaren 10ekoaren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoaren, 41. artikulua.
- Getxoko Udalaren barne kontrolerako araudiaren 32. artikulutik 37. artikulura arteko artikulua.

2008. NOV. 8 5

Honako TXOSTEN hau eman da, honi buruzkoa

1. EGINDAKO PRESTAZIOEN EGIAZTAGIRIA.

*(Apartatu honetan zehaztu eta eranskin moduan txertatu beharko da emandako jasotze akta, adostasunarena, albarana edo egiaztagiria zentro kudeatzaileko edo mendeko erakundeko buruak, edo obrak, zerbitzuak, hornidurak edo eskuratzeak jasotzeko eta onartzeko eman behar dituenak egindakoa, eta bertan adierazi beharko da eskuratutako materialaren kargu egin dela adierazten duena, identifikatzeko beharrezko zehaztasunekin, edo adierazten duena obra edo zerbitzua baldintza orokorren arabera egikaritu dela).*

2. PROPOSATUTAKO PREZIOA, ZENBATEKOA EDO MUNTAREN JUSTIFIKAZIOA ETA BALIOESPENA MERKATURA, TARIFA OFIZIALETARA EDO ARAUZKO ZENBATEKOETARA EGOKITZEN DELA, HALA BADAGOKIO.

*(Apartatu honetan egiaztatutako prezioa, balioa edo zenbatekoa dagokion merkatura edo araudira egokitzen dela. Justifikazio hori aholkularitza espezializatuetan, balioespen teknikoetan edo tarifa ofizialetan oinarritu ahal izango da)*

3. KONTU HARTZAILTZAREN FUNTZIOA OMITITU IZANAREN ARRAZOIAREN JUSTIFIKAZIOA.

*(Apartatu honetan azaldu beharko dira nahitaezko esku hartzearen jarduketak ekarri zuten arrazoiak, baita duen garrantziagatik azaldu nahi den beste edozein gai ere)*

4. HONAKO ALDERDI HAUEN INGURUKO BERARIAZKO ADIERAZPENA

1) Posible den jasotakoa birjartzea eta/edo emandakoa itzultzea.

2) Kalte ordainak izan ditzaketen egiaztatutako gastuak dauden. Hala bada, zehaztu.

3) Hornitzaileak administrazioaren aginduz jardun duen, eta bere fede onaren egiaztatpena.

4) Balioa ordaintzea dagokion (faktura, ordainsaria edo likidazioa) balizko administrazioaren bidegabeko aberastea ekarriko duena, eta ulertu ahal izan bada ordaintzea proposatu den zenbatekoa kalte-galeren ordainaren zenbatekoa baino txikiagoa dela.

Getxon, egun honetan

TEKNIKARI KUDETZAILEA

ALORREKO ARDURADUN TEKNIKOAREN ONIRITZIA



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO



Fueros, 1  
48992 GETXO (Bizkaia)  
Tf: 94 466 00 00  
Faxa: 94 466 00 85  
<http://www.getxo.eus>

## 2. PROZEDURA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAREN ALORREKO TXOSTEN- PROPOSAMENAREN EREDUA

**KONTU HARTZAILEAREN FUNTZIOA OMITITZEAREN espedientea  
KONTU HARTZAILETZAREN TXOSTENA, xx/xxxx zenbakia**

**Gastuaren deskribapen xehatua:** *(Kontu hartzailetzaren txostenaren datuak)*

- Organo kudeatzailea
- Gastuaren xedea
- Zenbatekoa
- Gastuaren izaera juridikoa
- Egiteko data
- Aurrekontuko aplikazioa
- Gastua egozten zaion ekitaldi ekonomikoa
- Bertan behera uzteko erakunde eskuduna

Udal Kontu Hartzailetzaren aurreko fiskalizazioaren omisioaren txosten ikusita, honako txosten proposamena bidali zaio **(UDALBURUTZARI/UDALBATZARI/ARTEZKARITZA KONTSEILUARI)**:

*1, 2 edo 3 AUKERA*

**1. Espedientea jarraitzea eta hurrengo apartatuan adierazten diren jarduketak egitea.**

*a), b) edo c) AUKERA*

a) Fiskalizazio izapidearen omisioa hautemanda, eta aldeko fiskalizazioaren emaitza ezagututa, \_\_\_\_\_n oinarritutako jarduketak baliozkotzea eta prozedura jarraitzea.

b) Egintza ezeztagarri gisa kalifikatzen duten antolamendu juridikoko arau hausteak hautemanda, horiek zuzentzea erabakitzea eta prozedurarekin jarraitzea.

Zuzendu beharreko jarduketak: \_\_\_\_\_

c) Egintza ezeztagarri gisa kalifikatzen duten antolamendu juridikoko arau hausteak edo ahozko kontratazio debekatuen kasua hautemanda, honako hau da bidezkoa:

*c.1 edo c.2 AUKERA*

c.1 **Ekonomia prozesalagatik**, prozedurarekin jarraitzea, eta \_\_\_\_\_ zenbakiko fakturaren zenbatekoari dagokion kalte ordainak finkatzea, espedientean jasotako prestazioen balioespenari buruzko informazioari jarraituz, eta bertatik eratorritako obligazioa aitortzea \_\_\_\_\_ren alde, \_\_\_\_\_ eurokoa.

c.2 Jasotako ondasuna birjartzea edo emandakoa itzultzea eta gainerako erabakiak, zerbitzu kudeatzailearen txostenean aukera egiaztatu delako.

**2. Espedientea ez jarraitzea, faktura itzultzea**, honako arrazoi hauengatik:

*Tokiko entitatearentzako bidegabeko aberastea sortu duen prestaziorik ez duela egin hartzekodunak eta abar.*

**3. Egintza baliogabetzat kalifikatzen duten antolamendu juridikoko arau hausteak hauteman badira.**

*a), edo c) AUKERA*

a) **Ofizios berrikusteko** prozedura hastea, baliogabetasuna adierazteko eta/edo, hala badagokio, administrazioaren **ondare erantzukizunagatiko kalte-galeren ordainaren erabakia** hartzea, 39/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aldi berean erabakitzea prozedura eteteko behin berrikuspena ebatzitakoan, aipatutako eta ebatzitako kalte ordaina izapidetu nahi diren fakturak, likidazioak edo ordainsariak baino txikiagoa izan daitekeelako.

a) \_\_\_\_\_ren alde \_\_\_\_\_ euroko administrazioaren ondare erantzukizunagatiko kalte-galeren ordaina emateko erabakitzea, aurkeztutako fakturak, likidazioak edo ordainsariak baino txikiagoa, 9/2017 Legearen, azaroaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuen, 37. artikulua debekatutako ahozko kontratazio kasu bat izanda, obrak, zerbitzuak edo hornidurak egitearen kasua, kontratazioari buruzko araudian ezarritako prozedura guztiz alde batera utzita, baliogabetzat jo beharreko egintza administratiborik ez dagoelako.

Getxon, egun honetan

ALORREKO ARDURADUN

TEKNIKO ALORREKO ZINEGOTZI DELEGATUA